

KONTRATATU AURREKO INFORMAZIO-OHARRA

Aseguru hau arau eta xedapen hauek arautzen dute: Aseguru Kontratuen urriaren 8ko 50/1980 Legeak (1980ko urriaren 17ko BOE), urriaren 29ko 6/2004 Legegintzako Errege Dekretuak (Aseguru Pribatuak Antolatu eta Ikuskatzeari buruzko Legearen testu bategina onartzen duena; 2004ko azaroaren 5eko BOE), azaroaren 20ko 2486/98 Errege Dekretuak (Aseguru Pribatuak Antolatu eta Ikuskatzeari buruzko Erregelamendua onartzen duena, 1998ko azaroaren 25eko BOE) eta Errege Dekretu hori aldatzen duen 1821/2009 Errege Dekretuak, baita Baldintza Orokor hauetan eta aseguru-polizako Baldintza Partikularretan hitzartutakoak ere.

Erakunde aseguratzailerak SEGUROS LAGUN ARO, S.A. da, eta helbide sozial hau du: Basurtuko Kaputxinoak, 6-2. 48013 Bilbo, Bizkaia, Espainia. Bizkaiko Merkataritza Erregistroan inskribatua, 186 liburukia, 36. folioa, BI 2483 orria - IFK: A-20079224. Gakoa: C-572.

Ekonomia eta Lehiakortasunerako Ministerioko Aseguruen Zuzendaritza Orokorri dagokio haren jardura kontrolatzea eta gainbegiratzea (C-572 erregistro-gakoa). Erakundearen finantza- eta kaudimen-egoerari buruzko txostena kontsultatu nahi izanez gero: www.seguros lagunaro.com/informacioncorporativa

Seguros Lagun Aro atxikita dago diruzko betebeharrak betetzeari edo ez betetzeari buruzko fitxategiei. Kontratatzeko unean nahiz kontratuaren indarraldian, Seguros Lagun Arok bezeroaren ondare-kaudimena aztertu ahal izango du, haren datuak fitxategi horietan kontrastatuz. Era berean, primak ordainduko ez balira aurreikusitako baldintzetan, ordaindu ez izanari buruzko datuak fitxategi horietan sartu ahal izango dira.

Hartzaileak Polizaren Baldintza Orokorren ale bat eska dezake, Seguros Lagun Aro S.A.ren edozein salmenta-puntutan. Aseguratuaren eskubideak mugatzen dituzten klausulak ez dira baliozkoak izango polizako Baldintza Partikularretan zehazki eta idatziz onartuta ez badaude, eta Baldintza Orokorretan nabarmenduta ez badaude. Onarpen hori ez da beharrezkoa izango legezko arauen transkripzio edo erreferentzia hutsak dituzten klausulak direnean.

NON ERREKLAMATU

Auzirik sortuz gero, Finantza-sistema Berritzeko Neurriei buruzko azaroaren 22ko 44/2002 Legearen 29. eta 30. artikuluekin bat, Finantza-erakundearen Bezeroarentzako Arreta-zerbitzu eta Sailei eta Bezeroaren Defendatzaileari buruzko martxoaren 11ko ECO/734/2004 Aginduarekin bat, eta ECC/2502/2012 agindua, azaroaren 16koa, Espainiako Bankuaren, Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalaren eta Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiaren erreklamazio-zerbitzuei erreklamazioak aurkezteko prozedura arautzen duenarekin bat, hona jo dezake Aseguru Hartzaileak **lehendabizi**:

→ Seguros Lagun Aro
Bezeroarentzako Arreta Zerbitzua
126. posta-kutxa, H.F.
48080 Bilbo
www.seguros lagunaro.com

Bigarrenik, eta adostasun-ezak badirau, kanpoko esparruan, idazkia hona bidaliz:

→ Dirección General de Seguros y Fondos de Pensiones
Servicio de Reclamaciones
Paseo de la Castellana, 44
28046 Madrid
www.dgsfp.mineco.es

Erreklamazioak Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiaren Erreklamazio Zerbitzuaren aurrean onar eta izapide daitezzen, ezinbestekoa izango da aurretiaz egin izana frogatzea, idatziz, Seguros Lagun Aroren bezeroaren arreta-zerbitzuari. Hark aurkeztu zaizkion erreklamazioak hartu izanaren berri eman beharko du idazki bidez, eta arrazoiturik konpondu edo ukatu beharko ditu erreklamazioak, idazki bidez hori ere. Halaber, erreklamatzailerak erreklamazioa aurkeztu zuen datuz geroztik kexa eta/edo erreklamazioa konpondu gabe bi hilabete pasatu direla frogatu behar izango du, edo erreklamazioa onartzeari uko egin zaiola edo bere eskaera ezetsi dela.

Edonola ere, beti izango du Epaitegi eta Justizia Auzitegi arruntetara jotzeko aukera.